

kotarro

Maitatu, ikasi, ari...

■ AEKide

Mai, mai, maiatza, martxoa, APIRILA, festa has dadila.

Ta, te, ti, tri, hiru?, ez, 7, 7an, nun? tri, tra, tre, TREBIÑUn.

Tu, tu, turututu, tu, turuta, musika, ruta, furgonak du bidea hartuta.

I, Itz, ez, hitz, hitz eta pitz, hitz eta pitz, kilometro anitz.

Ka, ka, kasik, ez hatsik, kasik, ia, ia, ia, DONOSTIA.

Si, bai, bai, bai nahi dut, izan euskaldun, bai, si, AEKn ikasi.

A, a, ase, egarria ase, a ze zalaparta, aparta, parte hartu ausarta!

Ri, ri, tori, eman, hartu, erori, jaiki, pasa lekuko hori!

Eus, EUSKARA, euskera, era, manera handiak, EUSKALTZAINDIA.

Ka, ka, kale, kalez kale, kale, leka, bainak eta patatak, tipi-tapa, tipi-tapa.

La, la, la, abestu, dantzatu, tu, tu, aizu, e zu, aizak, aizan, denok bat.

Ka, ka, karrika, rrika, gozoa, elkartasun beroa, gozoa, rrika, KORRIKA.

Ri, mirari da horrenbeste korrikalari, zenbat? TT? ez, HAMA ZAZPI.

Maitatu, ikasi, ari... EUSKALAKARI



Korrika Kulturala

Martxoaren 10ean

Hitzaldia: "Laiak, herri baten izaera lanabes baten bidez. Laiak ikertuz euskaldunak hobeki ezagutu".

Koldo Kolomoren eskutik.
Julian Romano Musika Eskolan. 20:00etan.

Martxoaren 15ean

EHEeko bideoemanaldia.
Lizarrako Kultur Etxean. 19:30etan.

Martxoaren 18an

Antzerkia: *Euskarazetamol*.
Ez Dok Hiru BIKOTEATROA taldearekin
Golem aretoan. 20:30etan.

Martxoaren 19an

Umeendako antzerkia.
Txirimurri eta Morritoston Babarruna anderearen zirkoan.
12:00etan.
(Lekua zehazteke.)

Martxoaren 24ean

Helduendako ipuinak.
Ion Barbarin ipuinontalariarekin.
Gure Hizkuntza elkartearen. 20:00etan.

Martxoaren 26an

Bertso afaria
Manix eta Jon Ansa bertsolariarekin.
Murugarrengo sagardotegian. 22:00etan.

Apirilaren 1. go asteburuan

Pilota partiduak
(eguna eta ordua zehazteke.)

Apirilaren 2an

Irantzuko Mankomunitateko herrien jaia.
Allotzen.

15
zbk.

kotarro

www.garean.org

2011ko martxoa

debaldeko alea

Garean-Jarduerak

Lizarran Kantuz

Martxoak 26 (19.30etan)
Apirilak 30 (20.00etan)
Maiatzak 28 (20.00etan)
Baxenabarra kaletik.

Txokolipuinak

Martxoak 30
Apirilak 20
Maiatzak 18
Arratsaldeko 18.00etan.
La Bota elkartearen.

Jolas-Solas

Martxoak 2, 16
Apirilak 6, 13
Maiatzak 4, 11
Arratsaldeko 17:00etik 18:30etara.
Gazteriaren Etxean.

Jauziak

Hilabeteko lehenengo
eta hirugarren ostegunean
Arratsaldeko 19:00etatik 20:15etara.
La Bota peñan.

Irakurle Kluba

Martxoak 31
Maiatzak 12
Arratsaldeko 19:30etan
Lizarrako Liburutegian.

Garean Irratian

Larunbatero 13:05etik aurrera.
Lizarrako Punto Radio-n.
(FM 93.4ean)



Ika, ika, ika... badator Korrika!

"Maitatu, ikasi, ari... euskalakari" leloaz apirilaren 7an Korrika 17 hasiko da Trebiñun. 9an Lizarran sartuko da.

Korrika ekimena hasi zela 30 urte igaro dira dagoeneko, 1980an korritu baitzen lehenbiziko aldiz. 1981ean ere, tarterik utzi gabe, ospatu zen, baina harrezkero bi urtez behin ospatzea erabaki zen. Aurtengoa, urte bakoitia izanik, korrika urtea dugu, apirilaren 17tik 17ra Trebiñu eta Donostia artean ospatuko da, hain zuzen ere.

Hori baino lehenago korrika kulturala iritsiko zaigu. Korrika kulturala 1993ko 8. korrikan hasi zen, baita korrika kirola ere, gero egiteari utzi zitzaion arren.

Euskal Herriko korrikarekin batera bertze zenbait tokitan bizi diren euskaldunak ere ospatzen dute, bizi diren hirietan korrika bereziak antolatuz, adibidez 1999ko 11.ean Bartzelonan eta Londresen ospatu zen, 2007ko 15.ean berriz, Madrilan, Bartzelonan, Argentinako Mar de Platan eta Txinako Beijingen.

Idea bera hartuta, beste herrialde batzuetan Korrikaren gisako ekimenak antolatzen dituzte. Catalunyan, adibidez, "correllengua" izeneko lasterketa antolatzen dute urtero 1993tik.

Aran haranean araneraren aldeko "corsa per la lenga" delakoaren 12. edizioa egin zuten 2005ean. Halaber, Galizian "correllengua" dugu 2000tik aurrera. Britainieraren alde "ar redadeg" antolatu dute 2008an lehenengo aldiz. Irlandarrek "rith" izeneko lasterketa antolatuko dute lehen aldiz 2010ean gaelikoaren alde.

Aurtengo Korrika, apirilaren 9an, larunbata, Lizarran sartuko da...

Urtero pertsona nahiz erakunde nahiz kolektiboren bat omentzen du korrikak, aurtun Euskaltzaindia, zenbait arrazoi daude horretarako: alde batetik Euskaltzaindiak AEKren sorreran izan zuen eraginagatik, bere babesean sortu zelako, eta bertzetik euskararen arautze, gidaritze eta horniketaren lan ugariagatik.

Aurtengo Korrika, apirilaren 9an, larunbata, Lizarran Alloko errepidetik sartuko da, Merkatondoan zehar; maldan behera, Lizarrako Udaletxe aurretik alde zaharrera, gero zahar-etxearen eta Kiroldegiaren ondotik, zubia igaro eta ikastola ingurutik berriro Kaputxinoen aldera, azkenik Aiegirantz igoz, Logroñoranzko errepideko herriak zeharkatzeko. Ea zenbat kilometro egiten duzuen!

kotarro

15. zenbakia

Julio Ruiz de Alda, 6 behe, ezk.
31200 Lizarra - Nafarroa
Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:

Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak




Diseinua eta maketazioa:
Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007
Ale kopurua: 800



Kotarro aldizkarian agertzen diren artikuluaren edukinaren ardurarik Garean Euskaldunon Elkarteak ez du hartzen, edukiaren erantzukizuna, bere osotasunean, autoreena baita.





Korrika, euskaldunon edabe miragarria

Edabearen errezeta: Galian ez bezala funtsezko bi osagaiak aski ezagunak dira, jendartearen euskararenganako maitasuna eta jendearen lan egiteko gogoia. Bi osagai horiek lapikoan sartu eta Korrika Batzordeen formula magikoaren bidez, osagaiak ongi irabiatu eta horra! Euskal mundua goitik behera aztoratzen duen eta neurrigabeko indarra ematen digun eda-laster-magikoa!



Alfredo Dufur

Edabearen albo-ondorio dugu Euskal kultura bultzatzea eta euskara jendartearen esparru guztietara eramatea, horiek izan dira betidanik AEK-noramiaren helburu. Horri bide emateko sortu zen Korrika Kulturala eta honen bitartez Korrikari esker lortzen den energiaren zati bat jendarte-onura ekimenean inbertitzen da.

Korrika bera edan aurreko hilabetean kultur ekimenez betetzen dugu Euskal Herririk, eta Estellerrix ere ez da salbuespena. Korrika Kulturalak bertan duen islada bi eremutan gauzatzen da. Alde batetik nazio mailan dauden puntako kultur-ekimenak gurera ekarri ahal ditugu, Euskarazetamol antzezlana kasu;

eta bertetik Lizarraldeko tribu anitzek ere elkarrekin egiten dugu lan, hilabete oso bat euskal kulturaz blaitzeko: hitzaldiak, dokumentalak, bertso-jaiak, bakarriketak, bisitak...

Hamaika ekimen euskaraz bizi nahi duen Estellerrixkarako.

Hau dena ez litzateke posible izanen tribuen eta norbanakoen laguntzarik gabe eta laguntza hori gauzatzeko bide asko daude: antolaketan parte hartu, Korrika

Laguntzailea egin, kilometroak erosi, kultur-ekimenean joan, Korrika materiala jantzi, diruz lagundu, oinetakoak astindu 10 egunez errepidean... Mila aukera dituzu modu baten edo bestean Korrikaren partaide izateko.

... euskarak bihotz ematen zigun gure maite-lanetan.



Honen guztiaren gune duzu Lizarraldeko Beinat Etxepare AEK-noramiaren intxixuetxea, hemen gaituz edozein sorginkeri berri plazaratu nahi izanez gero.

Arestian aipatu bezala, Korrika eda-laster-magikoak hainbat albo-ondorio ditu, horietako bat mezua. Aurtengo mezua zein den jakinen dizulakoan gaude, eta hitz bakarrean laburbildu leikeela ere bai: euskalakari. Baina, zer erran nahi du euskalakari izateak? Estellerrixkan ba al da euskalakari? Irakurle maitea, euskalakaria zara ala eda-laster-magikoa behar duzu? Zalantza hau argitzeko galdera sorta prestatu dizugu, zeure burua probatu nahi?

- Euskalakaria euskara maite duena da. Eta zuk?
- Euskalakaria lehenengo hitza euskaraz egiten duena da. Eta zuk?
- Euskaraz eginiko kultur ekimena non, euskalakaria han. Eta zuk?
- Euskalakaria ausarta da, eta zalantzaren aurrean euskaraz egiten dio lagun ezezagunari. Eta zuk?
- Euskalakaria ikasten ari dena da, eta ikasten ari denarekin mintzo dena. Eta zuk?
- Euskara erabiltzeko aukerarik ez dagoenean ere, aukera bilatzen duena da euskalakaria. Eta zuk?



Bat eta bakarra bada zure testeko baiezko erantzun kopurua; euskara maite duzu bai, baina maitasun hori bihotzetik mingainera eraman behar du zenuke euskalakaria izateko. Intxixuaren gomendioa: har ezazu eda-laster-magikoaren dosi bikoitza.


Bi edo hiru hautatu dituzu, euskalakaria zara baina hobetzeko aukerak ere badituzu. Intxixuaren gomendioa: eda-laster-magikoaren dosi bakarrarekin nahikoa izanen duzu.

Lauzapsei aukeratuta zorionak, euskalakari osoa zara, gutxi duzu hobetzeko, baina ez galdu iparra eta bilatu sakontzeko bidea. Intxixuaren gomendioa: eda-laster-magikoaren beharrik ez duzu, baina hartzeak ere ez dizu kalterik egingen.

Zazpi, ohorezko matrikula edo hamarra balorazioan. 10 zazpi Korriketan bezala zu ere bide zaila bezain aberatsa egiten ari zara lagun; baina euskalakari izateari esker zazpi ez, hamaika momentiko edo bizipen dituzu begi-gibelean gordeak eta horrek ez du preziorik. Zorionak eta eskerririk asko. Intxixuaren gomendioa: euskalakari izatea barru-barruan dararamazu, txikitzen edabe magikoaren lapikoan erori al zinen?

Galiako edabearekin alderatuz bada bigarren ezberdintasun bat, edabe hau ez da guretzat soilik, ni-gu-zu-zuek-tar izan zein hura-haiek-tar izan, bada edabe nahikoa denontzat. Beraz hemendik eta apirilaren 17a bitarte, espero dugu nonahi eta nolanahi elkar topatzea: izerditan, kalean, bertsoan, karrikan, entzulego, antzokian, ikusleko, beti ere elkarlanean eta elkarrekin gozatuz.

Badakizue, urrup edan edo klik! Ikimilikiliklik!!!



Harira



XXI. mendeko euskara elkarteak

Otsailaren 26an Topaguneak "XXI. mendeko Euskaldunon Elkarten Mugimenduaren Kongresua" egin zuen Bilboko Alhondegian. Euskaldunon elkarten federazioa da Topagunea eta Garean ere, partaide den gisa, Kongresuan egon zen.

Begoña Martínez

Topagunea 96 Euskaldunon Elkarteak osatzen dute eta haietarik gehien-gehienek ordezkari bidali zuten Bilboko Alhondegira. Eztabaidagai, XXI. mendeari begira elkarteak eta Topaguneak berak hartu beharreko norabide berria. Azken hilabeteak gogoeta prozesu batean murgildurik eman ondoren, "XXI. mendeko euskaldunon elkarten mugimenduaren oinarriparak" izenburuko txostena onartu zen Kongresuan.

Topaguneak 15 urte dituen arren, elkarte zaharrenek 30 urte luze egin dituzte, Arrasateko AED, errate baterako. Ibilbide luze honetan lorpen handiak egin dira, batez ere zerbitzuak euskaraz eskaintzeari dagokionez. Elkarte batzuk handiak dira eta langileak ere badituzte. Aisialdiari lorturiko zerbitzuak eskaintzen dira oro har.

Norabide berrian eragiteari eman nahi zaio garrantzia. Elkarteak mugimendu bateratu gisa ageri beharko lirakeke gizartean eraginkorrak izateko eta "ahots" propioa izan. Bertzalde, urte guzti hauetan metatu den jakintza eta ezagutza belau-

naldi berriei transmititu behar zaiela azpimarratzen du txostenak.

Gizarte eleanitza dugula onartuta, euskararendako hegemonia guneak bilatu behar dira, hots, euskararendako espazio eta funtzio hegemonikoak, non euskal hiztunak bere izaera garatzen ahal duen. *Hiztunon eskubideez mintzatzera eta aldarrikatzera gonbidatzen gaituzte. Gizarte eleanitza dugu eta hori aberasgarria da. Euskarak bere tokia du hizkuntzen artean eta, hizkuntza ekologiararen kontzeptua bere eginenez, euskara unibertsala da, ez*

da garrantzitsua bakarrik euskaldunondako, munduarendako ere bada, Amazonia bezala.

Porrotsen hitzak dira hauek: "Munduak behar gaitu, munduarentzat ere ari gara".

Eta Julen Arexolaleibak ere: "Euskaldun izateak egiten gaitu unibertsal".

(Informazio gehiago: www.topagunea.org)

Euskararendako hegemonia guneak bilatu behar dira...

Kantutegi berria, bero beroa

Gareanek hurrengo egunetan paratuko du salgai kantutegi berria: Lizarran Kantuz. Kantutegia 2 izanen du bere izena eta lehenengoa ordezkatu du.

Luisfer Etxeberria

2008ko udaberrian, Garean Elkarteak kaleratu zuen lehenengo kantutegia eta ale guztiak saldu egin dira hiru urte bete baino lehen. Arrunten harrera ona izan du kantutegi agortu berriak eta sekulako joko eman du iraun duen denboran zehar.

Etxean duzuenek, ongi gorde ezazue, jada agortu den liburuxka baten jabe zarete eta!

Baina denbora aurrera doa eta gu ere bai. Lehenbiziko kantutegi horrekin hiru uztez ibili gara kalean kantari eta ari-arian egokitzeko pistak bildu ditugu.

Kantu askorekin asmatu egin genuen eta bigarrenean mantendu egin ditugu; beraz, aurrenekoaren jarraipena izanen da berria.

Hala ere, *Lizarran Kantuz. Kantutegia 2* hau aurrekoa baino erabilgarriagoa izatea nahiko genuke, eta horixe du helburutzat berriak: tripak ateratzeko modukoa izatea, kantuak gustukoak eta funtzionalak bertan bilduz.

Sartu ditugun kantu berriak aurreraka tira egiteko asmoz aukeratu ditugu, kantuzale guzietan euskaltasunean eraberritzeko eta sakontzeko aukera emanez. Egunen batean, libururik gabe, buruz, bertan agertzen diren kantuak abesteko gauza izango bagina, ordun eta hobe. Kantutegi berriarekin jar zaitetze, bada, zuen etxeko giro intimo eta goxoan, kantuak barneratzen, paperik gabe aritzeko gauza

izan arte. Hortxe etorkizuneko euskaldunak, kantu altxor bizidunak.

Kantu berrien aukeraketa egiteko jende askoren iritzia jaso dugu eta bereziki Lizarran Kantuzen hilerio-hilerio laguntzen diguten musikarientzat. Hilabete batzuk eman ditugu zeregin horretan. Ikusiko duzuen bezala, kantu guztiak dira arrunten ederrak, izaera oso ezberdinekoak baldin bada ere eta ziur gaude datozen urteetan gozamenarako gorputz eta mamia izanen direla.



Bodegas Lezaun
Asador-Jatetxea

Enoturismo
Bisita gidatuak
Ardo-dastaketak

Lakar (Deierri) NAFARROA
info@lezaun.com - www.lezaun.com
Bodega 948 541 339 - Asador 948 541 231

LIBURUDENDA
INO
PAPERDENDA

Kale Nagusia, 78 - Kale Antxo Ramirez, 2
Tel. eta fax: 948 550 383 · LIZARRA

Jatetxea
Volante

Lagun-taldeendako bazkariak eta afariak
Merkatondoa, 14 · 31200 Lizarra · 948 555 695

ILARGI
ESTELLA-LIZARRA

Deigual

Nagusia kalea, 22
Tel. 948 553 421

Foto-inkesta



Korrika 17 eta Euskaltzaindia

Korrika 17ak Euskaltzaindiari omenaldia egiten dionez, Lizarrako euskaldunengana jo dugu erakunde horretaz galdetzeko asmotan:

1. Zer da Euskaltzaindia, zer lan egiten ditu, zer deritzozu?
2. Zer dakizu azken boladan egin dituen lanez edo erabakitako arauez?



Unai Gardoki, basozaina

1- Hizkuntzaren nondik norako guztiak aztertzen dituen eta erabakiak hartzen dituen erakundea da. Nahita nahiez egon behar du horrelako batek hizkuntza guztietan, eta are gehiago euskara bezalako hizkuntza minoritarioren kasuan.

2- Egiten duten lanari buruz askorik ez dakidan arren badakit izen aldaketa egiteko haien agiriak behar direla, nik Gardoki k-z jartzeko agiria eskatu nien eta etxean daukat, oraindik aldatu ez dudana. Gainera noizbait arauaren bati buruz zerbaite entzun izan dut baina kasu gehiegi egin gabe.



Enrique Arriaga, nekazaria

1- Hizkuntza batzuetan ez dago horrelako erakunderik, ingeleran ez dago, ezta? Ingeleraz BBC-k markatzen du hizkuntzaren erabilera. Erderaz berriz badago. Euskaraz nola hitz egin behar den, ikerketak eta arauak egiten dituen erakundea nik uste dut inportantea dela euskararen kasuan.

2- Garai batean, oso kuriozoso da, h-ak erabiltzea erabaki zuten eta gai horretaz argitaratu zutena nik irakurri nuen. Adibidez Euskal Herria berezita h-z eta elkartuta h-rik gabe. Hemen Lizarran 1990ean Lizarraren sorreraren 900 urteurrena ospatzen zelarik Euskaltzaindiak onomastikaz saio bereziak egin zituen, bizpahiru mintzaldi eta txango bat antolatuta zituzten Lizarran zehar Euskaltzaindiako kideekin.



Ane Zuloaga, irakaslea

1- Normalizaziorako beharrekoa da, egiten dituzten lanez hizkuntzarekin zer ikusia dutenez oso ongi dago. Lehen euskara batua sortzen eta eratzten oso mugimendu intelektual eta sozial antzekoa izan zen, herriarenganako hurbiltasunez.

2- Erakundea ofizializatzean kaletik pixka bat urrutiratzen ari dira azken urteetan, informazioa jasotzeko bide gutxi daude, ez daude kanalak euskaraz ari garenongana iristeko eta agian kalean euskaraz lanean ari direnentzat hurbilagoa izan beharko litzateke. Orain lehen baino zabalkunde lan eskasagoa dago. Nik ezagutu izan ditut Euskaltzaindiako kideak, batzuk irakasle izan nituen, eta nire lanagatik erebere zenbait lanen berri badut, araugintzaz batez ere ni ere irakaslea naizelako, eta gai horretan egunean nago.




Yayo Salegi, irakaslea

1- Euskarari sendotasuna eta garrantzia emateko sortu zen erakundea da, kriston lana egin du, batzuetan kritika gehiegi jaso dituztela uste dut, baina orokorrean lan ona egin dute eta orain ere ari dira egiten. Euskara batua oinarrikoa izan da, izan ere euskara zonalde askotan galduta zegoen eta ahalegin guztiak elkartzeko eta dena bideratzeko funtsezkoa izan da. Garai batean euskarak hizkuntza idatzi gutxi zuen eta batua tresna egoikia izan zen, baita jendea euskalduntzeko ere.

2- Oroitzen naiz EGArako ikasten ari nintzela bat-batean arau edo gomendio berria sortzen zela eta hura ikasi behar, baina orain nire aldeetik ere hori normalizatu zait. Euskara bizia denez gauza horiek beti sortuko dira eta komunikatzeko beharrekoak dira. Adibidez gaztelera ere oraintsu atera dira arau ortografiko berriak eta inork ez du ezer esan. Euskaraz ere berdin, gainera hizketan horrek ez du eraginik.




TABERNAZ KANPO HAINBESTE LAGUN ERRETZEN DABILTZALA!



KORRIKAKO PARTAIDEEK IBILBIDEAN FRONTALAK ERABILI BEHARKO DITUZTE.

denborapasak

Gurutzegramak



Ezker eskuin

1. Galiziarren korrika
3. Korrikalariet daramatena
6. Korrikaren aurtengo omendua
7. Korrika antolatzailea

Goitik-behera

1. Katalanen korrika
2. Hego Afrikako basamortua
4. Nor-Nori-Nork, zuk niri, singularra, lehenaldia
5. Korrikaren sinonimoa

Euskalglofoa

Zer ospaten da?



Angela
Plaza Fueros 2 - Tel 948 55 07 95

KATXETAS
taberna

Estudio de Gramática, 2
31200 Lizarra- Nafarroa

Tel. 948 550 010

Udalbide.net
www.udalbide.net

ALBISTEAK ETA INFORMAZIOA GUZTIA ESKURA

Sartu zure udalberria eta ilus ezazu zure UDALERRIAREN informazio guztia eguneratuz.

Ezagutu ezazu Euskal Herria, EUSKAL HERRIA SAIKONEAN atalaren bitartez. Hor aurkituko dituzu Lurraldea, Biztanleria, Ekonomia eta gizartea, Euskara eta hezkuntza, Udalerriak eta Euskal Diasporaren inguruko gauzokutako datu guztiak.

Eta harpidetu zaitzez BULETIN ASTENARI ELEKTRONIKOra. Astero jasoko dituzu azken-azkeneko berriak.

www.udalbide.net
www.udalbilizalea.eu

ZUREKIN

Mirari
centro de estética y masajes

c/ urbieta, 1 / 31200 estella
t. 948 554 001

www.centromirari.com